


KAZETARIENTZAKO HEZIKETA TAILERRA, «ADINGABEAK ETA ALKOHOLA» EGITARAUAREN BARRUAN

Adingabeen gehiegizko kontsumoa eragozte eta jokabide horiekiko permisibitate giro soziala amaitzea da *Adingabeak eta alkohola* programaren helburu nagusia. Programak hainbat neurri dakartza hezkuntza, osasun eta familia eremuetan abian jartzeko.

Oraingoan, kazetariarentzako heziketa tailer teoriko-praktikoa antolatu du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak. Doako lantegi horretan, adingabeen alkohol kontsumoaren inguruko gorabeherak aztertuko dira prebentzio teknikarien eta osasun arloko komunikazio adituen laguntzaz.



URIBE-AREETAKO EGUNEKO OSPITALEA OSASUN MENTALEKO ARAZOAK DITUZTEN PAZIENTEENTZAT

Uribe-Areetako eguneko ospitalea Osakidetza Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean dagoen arreta zerbitzua da, eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eguneko etengabeko arreta intentsiboa eskaintzen die erregimen ambulatorioan, Getxoko esparru geografikoan.

Zentro horrek hogeita hamar pazienteri arreta eskaintzeko gaitasuna du, eta horri esker, buruko gaixotasun larriak dituzten pertsonentzako arreta zerbitzuen eskaintza handitu egin da Uribeko eskualdean.


EHU-K GIZA ANATOMIAKO ATLASA IKASLIBURUA EUSKARATU ETA PLAZARATU BERRI DU EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAREKIN

Anatomiaren arloko erreferentzia liburu hau Marbán argitaletxearen *Máster Atlas de Anatomía* lanaren itzulpena da. Atlasak giza anatomia-aren euskarazko terminologia osoa biltzen du, irudi zehatzekin batera.

Medikuntzan ez ezik, Osasun Zientziekin zerikusia duten beste hainbat arlotan ere baliagarria da, zuzenean edo zeharka: Erizaintzan, Fisioterapia, Odontologian, Biologian, Farmazian, Gorputz Hezkuntzan, Psikologian, Hezkuntza Terapian, bai eta Dantzan eta Artean ere.

Atlasak 725 orrialde eta hamalau atal ditu, giza aparatuen eta sistemen arabera antolatuak. Lehenengo kapituluan, giza gorputza bere osotasunean azaltzen da, eta ondokotan, atalka: larruzala, lokomozio aparatua (muskuluak, eskeletoa eta giltzadurak), bihotz-odoretako aparatua, digestio aparatua, arnas aparatua, gurnu eta ugaltza aparatua, immunitate sistema eta sistema endokrinoa, nerbio sistema, eta, azkenik, zentzumen organoak.

Liburua osatzeko, glosario bat erantsi da bukaeran, izendapen guztiak lau hizkuntzatan dituenak: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta latinez (nazioarteko *Nomina Anatomicarum* arabera).



EUSKARAZKO ESKAINTZA KORPORATIBOA GERO ETA ZABALAGOA DA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAN

Osakidetza Euskara Planean ezarritakoarekin bat etorruta, Erakunde Zentraltik antolatzen diren euskarazko prestakuntza ikastaroak ugaritzen ari dira. Urrian, esaterako, euskara beren-beregi langai duten ikastaroak bazter utzita, honako ikastaro hauek dira hastekoak: *Genero indarkeria: kasu praktikoak, Presioak eragindako ultzeren prebentzioa eta zainketa, Erizaintzako metodologia eta zainketen kudeaketa: Osanaia, Talde lana esparru sanitarioan: trebeziak, Adimen emozionala, Eskuen higiearen zainketa atentzio sanitarioan eta Pazientearen segurtasunari buruzko oinarrizko ikastaroa.*

Esan gabe doa eskaintza ugaritze hori bat datorrela Osakidetza 2. Euskara Planak ezarritakoarekin, euskararen erabilera Osakidetza langileen etengabeko prestakuntzan areagotu egin behar baita apurka-apurka; izan ere, Plan-gintzaldiko hirugarren urterako, etengabeko prestakuntza eskaintza korporatiboan, euskarazko ikastaro kopuruak Osakidetza langile elebidunen portzentajearen erdira heldu beharko du apurka-apurka.

«Generoak modu nuklearrean markatzen du gizabanakoen nortasuna eta subjektibitatea»

marga saenz herrero

Akutuentzako Ospitalizazio Unitateko psikiatra ondokoa Arabako Unibertsitate Ospitalean

Generoen arteko berdintasuna lortzea da Marga Saenzen helburua eta ametsa (1968, Madril). Arabako Unibertsitateko Ospitalean aritzen da, Psikiatrian, eta Akutuentzako Ospitalizazio Unitateko psikiatra ondokoa da, Psikiatria irakasten du EHUko Arabako campuseko Medikuntza Fakultatean, eta Osasun Mentalaren Elkarteko kide da. Dioenez, generoen berdintasuna lantzen du «une oro eta toki guztietan». Horri lotuta, hitzaldi ugari antolatzen ditu, baita parte hartzen ere. Hori gutxi balitz bezala, liburu bat argitaratuko du laister Europa osoan.

Irailaren 12an, Genero Berdintasunaren Aldeko I. Jardunaldiak egin zenituzten Osakidetzan; zeuk antolatuta, gainera. Emaitzarekin gustura?

Nire balorazioa oso baikorra da. Helburua zen generoa Psikopatologiaren eta Osasun Mentalaren esparruan ikuskatzea. 180 eta 200 ikus-entzule inguru bertaratu ziren, eta egia esan, ohikoarekin alderatuta, oso kopuru handia da. Osasun Mentalaren Elkarteko kidea naiz, eta genero berdintasunaren inguruko ekimen ugari aritu naiz antolatzailerik zein parte-hartzaile. Tamalez, halakoetara oso jende gutxi batzen da: 20 eta 30 lagun artean.

Poztekoa da gorakada hori. Baina gizartean islatzen al da? Nolako da egungo egoera?

Egoera txarra da, tristea. Krisi garaietan emakumeen eskubideak urratzeko joera dago. Aurtengo udan, genero indarkeria kasuek ikaragarri egin dute gora, eta hori egoera latzaren adierazle argia da. Emakumeen eskubideak etengabe zapaltzen dira: adibidez, hor dago Hondarribian alardearen jaiaren gertatutakoa. Emakumeak iraindu eta harrikatu zituz-

ten ospakizunean parte hartu nahi izateagatik. Zein da arazoa, baina? Halako gertakariak sufrimendu psikikoa eragiten dute, eta, horrenbestez, psikologoen zein psikiatren kontsultetan gizonezkoak baino emakume gehiago egotea.

Berdintasunetik oso urrun gaude oraindik. Zein dira adierazlerik argienak, zure ustez?

Agerikoa da berdintasun falta. Nire ikuspuntutik, hiru dira adierazle nagusiak: lehen aipatu ditudan genero indarkeria kasuak, etxeko lanen banaketa desorekatua eta *kristalezko sabaia*.

Kristalezko sabaia?

Errepara dezagun ardurazko lanpostuetan: Arabako, Bizkaiko zein Gipuzkoako zerbitzuburu gehienak gizonezkoak dira. Unibertsitatean nengoen garaian, ikasleen %70 emakumeak ginen. Beraz, uste dut badirela ardurazko karguetarako oso ondo prestatutako eta balio handiko emakumeak, baina ez dago bakar bat ere. Hori ere berdintasun faltaren isla da.

Ardurazko karguei erreparatuz, zer esango zenuke politikariek egiten duten lanaz?

Haurdunaldia eteteko eskubideari da-

gokionez, justiziazkoa iruditzen zait epeen legea bere horretan uztea. Gallardonon legea emakumeen eskubideen atzerakada argia izango zen. Azkenean, eutsi egin diogu aukeratzeko eskubideari. Bestalde, udan Espainiako Barne Ministerioak abiatu zuen kanpaina aipatu nahi nuke. Emakumea erruduntzat jotzeko mezuak zabaldu zituzten: ez zaitez igo bakarrik igogailuan, ez ezazu idatzi zure izena etxeko postontzian... Mezu itxuragabeak dira, beste garai batekoak. Zer eraso gertatzen diren ikusita, errudunak emakumeak direla zabalitzen dute. Emakume guztiok beldurrez bizi gara, eta ez da bizitzeko.

Hezkuntzan gaia lantzea beharrezkoa da, ezta?

Nire ustez, oso garrantzitsua da bai, oinarria. Haurrei oso nortasun estua inposatzen diegu, batez ere mutikoei. Emozioak ez adierazten, ahulguneak ezkutatzen eta sufrimendua estaltzen irakasten diegu. Mutiko batek gonak jantzi nahi izatea guztiz zigortuta dago, eta oihartzun eta eztabaida handia sorrarazten du. Aldiz, neskato batek futbola atsegin badu eta talde batean par-

te hartzea erabakitzen badu, hori txalotu egiten da: neskato ausarta dela ulertzen dugu. Eta galtzak jantzi nahi badi-tuzte, hori, noski, ohikoa da, normala ikusten dugu. Arropak ez dira emakumeenak edo gizonezkoenak, eta ezta koloreak ere.

Zuk zeuk gelan landuko duzu gaia, ala?

Nik beti lantzen dut gaia, toki guztietan. Aurten, esaterako, elikatze jarrera arazoak landu ditut ikasleekin. Oso deigarriak dira anorexia eta bulimia kasuen portzentajeak: hamarretik zortzi edo bederatzik emakumezkoak izaten dira. Duela bi mendetik hona, datuak ez dira aldatu, eta hori ez da normala. Datuak interpretatzen baditugu, agerikoa da oso aurrerapauso gutxi eman ditugula. Estereotipoen ondorioa da Mendebaldean eratu den gorputzaren irudia: argaltasun maila hori normaletik kanpo dago, guztiz neurrigabea.

Liburu bat argitaratuko duzu laster. Zein da gaia?

Alemaniko Springer argitaletxearekin ari naiz, bai. Gai medikoak lantzen dituzte. Argitaratuko dugun liburua *Psychopathology in Women. Incorporating Gender Perspective into Descriptive Psychopathology*. Izenburuak dioen bezala, psikopatologia azterketa egiten dugu, genero ikuspegitik. Genero zentsura dagoela uste dut: genero maskulinoa da balio neutroa, eta genero femeninoa harekin erlazionatzen dute. Jarrera edo sintomak patrio maskulinoan oinarrituta sailkatzen edo etiketatzen dira, eta hori aldatu egin behar dugu. Emakumearen sintomak eta jarrerak etengabe psikiatrizatzen eta psikologizatzen dira. Osasun munduan emakumeaz aritzen garenean, dena haurdunaldiarekin, erditzearekin edota bular ematearen fasearekin erlazionatzen dugu; baita Osakidetza bertan ere. Emakumezkoak ama ez badira, osasun mundutik at uzten ditugu. Osasun Mentalean ere berdintzatzen da: erditu osteko depresioa, menopausia, hilekoaren aurreko sindromea... Emakumearen gorputzaren psikiatrizazioa zinezkoa izan da XIX.



IANIRE RENOBALLES

mendean eta XX.aren hasieran. Aurreiritziek beti kalte egin dute emakumeekiko pertzeptzioan eta haiei ematen diegun tratamenduan. Liburu Europa osoan zabalduko dugu, eta hasiera batean, behintzat, ingelesez argitaratuko dugu.

Parte-hartzaile asko izan al ditu?

Bai, noski. Ni editore lanetan nabil. Atalak koordinatzeko ardurak izan dit, eta haietako bostetan parte hartu dut. Gainontzekoetan, mugitzen naizen esparruetako profesionalak parte hartu dute, esaterako: Osakidetzako profesionalak, EHUkoak, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsekoak, Liverpoolgo Unibertsitatekoak eta New Yorkeko Roberto Clemente Zentrokoak.

Nondik hasi berdintasunerako bidea?

Uste dut bi eremutan lan gogorra egiten hasi beharko genukeela: hezkuntza sisteman eta osasun munduan, hain

zuzen. Bi sistematan berdintasunerako agenteek egon beharko lukete ezinbestean. Aurrerapauso handia litzateke hori. Zientzian ere landu behar dugu genero berdintasuna. Duela gutxi argitaratu zuten Science aldizkarian generoa kontuan ez izatea zientzia gaizki egitea dela. Esparru horietan guztietan hobekuntzak egitetik hasi beharko genuke.

Denok egin beharreko lana da.

Ezinbestean. Ez da emakumeen, gizonezkoen, bisexualen edota transexualen kontua. Gizaki guztiokin zerikusia du, eta denoi eragiten digu: ez da pertsonen kontua, giza eskubideen kontua baizik. Gaiarekin kontzientziatutako emakume eta gizon asko daude. Berdintasuna bitarikoa balitz bezala aurkezten dugu, baina hori oso zurruna da, hausteko taburik zailenetakoa; horrexegatik, emakume guztiok elkarrekin beharko genuke, giza eskubideen alde egiteko denok batera.

gramatika

SINGULARRA ETA PLURALA:

Izen abstraktu batzuekin, gaztelaniak plurala ohi duen hainbat kasutan euskarak singularra du berreko:

Familiak baditu esperantzak baino egokiago da beste hau: *Familiak badu esperantza*.

Min hartzeko arriskuak areagotu egiten dira baino egokiago da *Min hartzeko arriskua areagotu egiten da*.

Pazienteak libratzeko zailtasunak ditu baino egokiago: *Pazienteak libratzeko zailtasuna du*.

Plurala batzuetan ez da zuzena. *Kontrolatu erretzeko gogoak* forma okerra da; GOGO hitza singularrean erabili behar da: *Kontrolatu erretzeko gogoa*.

Pluralean erabiltzeko joera gaztelaniak eraginda sortu da, «ganas» hitza gehienetan pluralean erabiltzen delako: *Tiene ganas de operarse* = *Operatzeko gogoak ditu*.

Ez nahasi, ordea, pluraleko forma horiek NORK kasuarekin: *Egizu gogoak ematen dizuna*.

Ezekako esaldietan partitiboan agertzen denean, aditza singularrean agertu behar da, jakina: *Ez du jateko gogorik*.

Eta oraindik ere, *gogoa* lantzeko gogorik baduzu, hona hemen [ariketak](#).

Iturburu nagusia: Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak (Patxi Petrirena)

EGINEZ GERO ≠ EGITEKOTAN

-(e)z gero eta -(t)zekotan (baldintza zentzua duenean) sinonimotzat hartu izan dira, eta oker hori oso zabaldua dago. Ez harritu honelakorik irakurritz gero:

- *Berdinketa egotekotan*, *presidenteak lehentasunezko botoa edukiko du*.
- *Konstituzionalak aurka egitekotan*, *herri-galdeketa atzera liteke*.
- *Bat baino gehiago agertzekotan*, *lehenengoa bakarrik hartuko da kontuan*.

Esaldi horiek honela behar lukete, noski:

- *Berdinketa egonez gero*, *presidenteak lehentasunezko botoa edukiko du*.
- *Konstituzionalak aurka eginez gero*, *herri-galdeketa atzera liteke*.
- *Bat baino gehiago agertuz gero*, *lehenengoa bakarrik hartuko da kontuan*.

Izan ere, baldintzako esaldiak bi atal ditu: baldintza eta ondorioa. Bien artean kausa-ondorio erlazioa dago, eta, beraz, lehenbizikoa betetzearen ondorioa da bigarrena:

- *Berdinketa (baldin) badago*, *presidenteak lehentasunezko botoa edukiko du*.
- *Auzitegi Konstituzionalak aurka egingo balu*, *herri-galdeketa atzera liteke*.
- *Bat baino gehiago agertzen bada*, *lehenengoa bakarrik hartuko da kontuan*.

-(t)zekotan baldintzetan, ordea, ez da betetzen kausa-ondorio erlazioa; ia-ia, baldintzako ez, baizik eta helburuzko esaldia dela esan daiteke hainbat kasutan: *Tamaina txikiko tumorazioetan, kortikoideak injektatzeak emaitza onak izan ohi ditu*, *baina tumore handiak sendatzekotan*, *kirurgia eta kistea erauzteak beste irtenbiderik ez dago*.

Erne, beraz, eta ea nola osatzen dituzun esaldi hauek -(e)z gero eta -(t)zekotan erabiliz:

- 1) *Sukarra _____ (izan) _____, itzuli Larrialdietako Zerbitzura*. (sukarra baduzu, itzuli)
- 2) *Kalkulia _____ (kanporatu) _____, gorde ezazu, eta eramaiozu zeure medikuari*. (kanporatzen baduzu, gorde eta eraman)
- 3) *Bihar ospitaletik gertu _____ (aparkatu) _____, goiz jaiki beharko dugu*. (goiz ez bagabiltza, jai!)
- 4) *Zer aldatuko zenuke gainbegirale _____ (izendatu) _____?* (izendatuko bazintuzte)
- 5) *Guztiz _____ (sendatu) _____, medikuaren esanak zintzo-zintzo bete beharko dituzu*. (aginduak jator bete, eta, agian, sendatuko zara)

ERANTZUNAK:

1- izanez gero; 2- kanporatuz gero; 3- aparkatuz gero; 4- izendatuz gero; 5- sendatuz gero; 6- izanez gero; 7- kanporatuz gero; 8- aparkatuz gero; 9- izendatuz gero; 10- sendatuz gero

agenda

13. JOSE ANTONIO AGOTE SARIA

OEEK, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak antolatzen du sari hori, LKS eta Mondragon Health-ekin lankidetzan, osasunarekin lotutako ikasgaien euskarazko testuen sormena eta argitalpena bultzatzeko asmoz.

Lanak aurkezteko azken eguna: 2014ko abenduak 31.

[webgunearen esteka](#)

EUSKARAZKO TESIEI DEFENTSARAKO BEHAR DIREN DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA

Tesien zatiak beste hizkuntza batera itzultzeak edo, ezinbestekoa balitz, defentsa eguneko interpretazio lanak sortzen dituen gastuetan laguntzeko.

Eskariak aurkezteko epea: 2014ko azaroaren 15era arte.

[webgunearen esteka](#)

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBETARAKO 2014KO BIGARREN DEIALDIA

Eskabideak aurkezteko epea irailaren 24an bukatu zen, eta datorren **urriaren 8an argitaratuko da probetarako onartuen eta baztertuen zerrenda**. Idatzizko azterketa azaroaren 8rako aurreikusten da.

[webgunearen esteka](#)

unitate didaktikoa

Hona hemen
2.hizkuntza
eskakizuneko idatzizko
azterketaren iazko
eredu bat

